

2007ko otsailean bidaiarien sarrerak %4 gehitu dira

2006ko otsailaren aldean, bidaiariek %4 gau gehiago igaro dituzte

Eustaten datuen arabera, 2007ko otsailean 120.941 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 4.000 baino gehiagok eta, horrenbestez, %4ko gehikuntza izan da. Arabara eta Bizkaira heldutako bidaiari kopurua %6 gehitu da baina Gipuzkoara heldutakoena %1 gutxitu da.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerek %1eko gehikuntza izan dute eta atzeritik etorritakoen sarrerek %12koa. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua gehitu egin da Bizkaian (%6) eta Araban (%5), baina Gipuzkoan horien kopurua %6 gutxitu da. Hiru lurralde historikoetara etorri da atzeritar gehiago: Gipuzkoara %18 gehiago, Arabara %12 gehiago eta Bizkaira %7 gehiago.

Estatutik etorritako bidaiarien kasuan, besteak beste EAetik, Gaztela eta Leondik, Asturiastik, Kantabriatik eta Galiziatik etorritakoen kopurua gehitu egin da. Bestalde, gutxitu egin da Madrildik, Kataluniatik, Valentziatik eta Errioxatik etorritakoen kopurua. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Frantziatik, Irlandatik, Italiatik, Erresuma Batutik eta Iberoamerikatik; aitzitik, Greziatik, Portugaldik eta Danimarkatik etorritakoen kopurua gutxitu egin da, besteak beste.

2007ko otsailean 218.591 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko otsailaren aldean gaua igaro dutenen kopurua %4 gehitu da, guztira ia 9.000 gau gehiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %5 gehitu da kopuru hori, Bizkaian %5 eta Gipuzkoan %2.

Batez besteko egonaldiaren iraupena ez da askorik aldatu: aurreko urteko otsailean batez besteko hori 1,80 egunekoa izan zen eta aurtengo otsailean 1,81 egunekoa. Araban eta Bizkaian ere ez da aldaketa handirik egon; bi lurraldeetan %1 murriztu da eta Gipuzkoan %3 gehitu da (lehen 1,84 egun eta orain 1,90 egun).

Plazen okupazio mailak %1eko beherapena izan du; aurreko urteko otsailean %36,36koa zen eta aurtengo otsailean %36,11koa. Beherapen hori Gipuzkoan eman zen (%-6), baina Araban eta Bizkaian gehikuntzak izan dira: %2 eta %3, hurrenez hurren.

Nekazalturismoa: Bidaia-arien sarrerak gehitu ziren (%4), baina bidaia-riek igarotako gauak ere (%5)

Otsailean 5.579 bidaia-ri izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %4 gehiago; bidaia-ri kopurua %41 gehitu da Araban baina gutxitu egin da Bizkaian (%4) eta Gipuzkoan (%3). Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora etorritako bidaia-rien kopurua guztira %5 gehitu da: Araban %39 gehitu da kopuru hori baina Bizkaian (%4) eta Gipuzkoan (%1) gutxitu da. Euskal Autonomia Erkidegoan %15 atzeritar gutxiago izan da: Gipuzkoan kopuru hori %40 murriztu da, Bizkaian pixka bat gehitu da (%5) eta Araban (ehunekoak aintzat hartuta) nabarmen egin du gora.

Otsailean 12.659 gau igaro dituzte bidaia-riek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan; honek %5eko gehikuntza ekarri du aurreko urteko hilabete beraren aldean. Urtetik urtera, bada, Araban (%41) eta Bizkaian (%18) hazkunde-tasa positiboak izan dira; Gipuzkoan, ordea, %10eko gutxitzea eman da.

Bidaia-ri bakoitzaren batez besteko egonaldi kopurua pixka bat gehitu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006ko otsailaren aldean; hain zuzen, duela urtebete 2,24 eguneko batez bestekoa izan zen eta aurtengo otsailean 2,27koa. Bilakaera positibo hau Araban eta batez ere Bizkaian eman da, baina Gipuzkoan indizeak behera egin du.

Plazen okupazio maila %4 gutxitu da: Gipuzkoan (%-19) izan den beherapenaren ondorioz (%-29), baina Araban eta Bizkaian datuak positiboak izan da (%30 eta %8 hurrenez hurren).

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	02 2007	%	02 2006	%	Δ %	02 2007	%	02 2006	%	Δ %	02 2007	%	02 2006	%	Δ %	02 2007	%	02 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	218.591	100	209.715	100	4	32.801	100	31.095	100	5	105.012	100	99.771	100	5	80.778	100	78.849	100	2
Estatukoak	159.584	73	159.395	76	0	26.123	80	25.218	81	4	73.991	70	71.936	72	3	59.470	74	62.241	79	-4
Atzerrikoak	59.007	27	50.320	24	17	6.678	20	5.877	19	14	31.021	30	27.835	28	11	21.308	26	16.608	21	28
Hiriburua	134.657	62	130.106	62	3	25.558	78	24.463	79	4	66.985	64	66.934	67	0	42.114	52	38.709	49	9
Litoral	23.612	11	22.414	11	5	-	-	-	-	-	8.619	8	8.245	8	5	14.993	19	14.169	18	6
Barnealdea	60.322	28	57.195	27	5	7.243	22	6.632	21	9	29.408	28	24.592	25	20	23.671	29	25.971	33	-9
BIDAIARIEN SARRERAK	120.941	100	116.817	100	4	19.142	100	18.023	100	6	59.241	100	55.900	100	6	42.558	100	42.894	100	-1
Estatukoak	92.070	76	90.968	78	1	15.561	81	14.824	82	5	44.531	75	42.181	75	6	31.978	75	33.963	79	-6
Atzerrikoak	28.871	24	25.849	22	12	3.581	19	3.199	18	12	14.710	25	13.719	25	7	10.580	25	8.931	21	18
Hiriburua	77.478	64	73.390	63	6	14.119	74	13.512	75	4	38.724	65	37.704	67	3	24.635	58	22.174	52	11
Litoral	11.045	9	11.135	10	-1	-	-	-	-	-	4.712	8	4.528	8	4	6.333	15	6.607	15	-4
Barnealdea	32.418	27	32.292	28	0	5.023	26	4.511	25	11	15.805	27	13.668	24	16	11.590	27	14.113	33	-18
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,81		1,80		1	1,71		1,73		-1	1,77		1,78		-1	1,90		1,84		3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	36,11		36,36		-1	34,92		34,15		2	36,09		35,07		3	36,66		39,19		-6
Hiriburua	38,97		38,94		0	40,60		38,93		4	38,88		39,17		-1	38,18		38,56		-1
Litoral	35,01		36,69		-5	-		-		-	27,91		29,01		-4	41,00		43,36		-5
Barnealdea	31,37		31,50		0	23,37		23,50		-1	33,49		28,87		16	32,21		38,11		-15
BETETZE-MAILA GELAKA	46,61		46,88		-1	45,15		43,00		5	46,70		46,27		1	47,17		49,67		-5
Hiriburua	50,19		51,22		-2	52,91		50,91		4	49,75		51,88		-4	49,19		50,22		-2
Litoral	43,90		44,72		-2	-		-		-	36,59		36,37		1	49,90		51,95		-4
Barnealdea	40,92		39,40		4	27,35		24,87		10	43,68		37,80		16	43,05		47,77		-10
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	12.659	100	12.048	100	5	2.396	100	1.696	100	41	3.995	100	3.392	100	18	6.268	100	6.960	100	-10
Estatukoak	11.221	89	10.817	90	4	2.336	97	1.612	95	45	3.449	86	3.164	93	9	5.436	87	6.041	87	-10
Atzerrikoak	1.438	11	1.231	10	17	60	3	84	5	-29	546	14	228	7	139	832	13	919	13	-9
BIDAIARIEN SARRERAK	5.579	100	5.368	100	4	1.220	100	868	100	41	1.539	100	1.596	100	-4	2.820	100	2.904	100	-3
Estatukoak	5.363	96	5.115	95	5	1.188	97	856	99	39	1.447	94	1.508	94	-4	2.728	97	2.751	95	-1
Atzerrikoak	216	4	253	5	-15	32	3	12	1	167	92	6	88	6	5	92	3	153	5	-40
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,27		2,24		1	1,96		1,95		1	2,60		2,13		22	2,22		2,40		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	14,84		15,52		-4	15,59		11,95		30	14,37		13,34		8	14,87		18,32		-19
BETETZE-MAILA GELAKA	18,22		18,93		-4	18,38		14,05		31	17,36		16,44		6	18,75		22,54		-17

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp